

**LAGUNTZA ETA GIZARTE SAILA SGAE
ETA SGAE FUNDAZIOA**

**ADINEKO LANGABETUENTZAKO KOTIZAZIO URTEAK KONPENTSATZEKO
IV DEIALDIA**

Autore eta Argitaratzaileen Elkarre Nagusiak (SGAE), Bazkideen Saila eta SGAE Fundazioaren bidez, deialdi publiko hau egiten du, Segurantza Sozialean 10 eta 14 urte arteko kotizazioa duten eta lan-bizitza amaitu eta gero Jubilazio Pentsio Kontributibo bati eusterik ez dioten autore bazkideentzako kontratazioak egiteko.

Honako laguntza hauek zera bilatzen dute, alegia, lan eskasiaren aurrean, Jubilazio Pentsio Kontributibo bati eusteko gehienez 5 urte geratzen zaizkien autoreak Segurantza Sozialean kotizatzen jarraitzerik izatea, Erakunde Sozialetan gauzatuko den antzerki, ikusentzunezko eta musika lanen errepresentazio plangintza baten bidez, eta, Segurantza Sozialaren Pentsio Kontributiboari eusteko exijitzen zaien gutxienekoa lortu arte. Honako laguntza hauek SGAE Fundazioaren aurrekontu ahalmena izango dute muga gisa.

Halaber, ez dira aurreko baldintzak betetzen ez dituzten bazkideen eskaerak baztertuko, gutxienez, Segurantza Sozialean 10 urte akreditazerik badute. SGAE Fundazioak eskaera guztien azterketa eta balorazioari ekin ahal izango dio erakundearen aurrekontu baldintzek bideratzerik dutenean, beti ere, Jubilazio Pentsio Kontributiboari heltzeko hilabete gutxien geratzen zaizkien kasuei lehentasuna emanez.

OINARRIAK:

I.-ONURADUNAK

Laguntza hauek **bizirik diren eta botoa duten SGAEn bazkide-autoreak** eskatzerik izango dituzte. Aintzat hartu beharreko baldintzak honakoak dira:

- Jubilazio Pentsio Kontributibo bati eusteko exijitzen diren gutxieneko urteak ez dituzte bazkideak izan behar dira. Bide batez, Segurantza Sozialean kotizatzen lan-bizitza osoan izan diren bazkideak, eta azken hamabost urteetan Espainian SGAEn eremu kudeaketaren proiektu auzaldu edo artistikoren batean lan egiterik izan dutenak. Betebehar hau egiaztatzeko Segurantza Sozialaren Tesoreria Orokorra ematen duen lan-bizitzaren Txostena eskatzen da (dokumentua egiazkotzat joko da, eskaeraren urte naturalean igorria izan bada ere).
- Autorearen urteko sarrerak IPREM 2018 delakoaren bikoitzarekiko berdina edo txikiagoa izan behar dira (6.545,03 €).
- Laguntzak emango dira baldin eta indarrean den deialdiaren urte berean autoreak Emergentziako Laguntza Sozialik jasotzen ez badu.
- Autoreak Pentsio Kontributiboari eusteko burutu behar dituen ekimen edo emanaldiak zinez burutu behar dituela argi justifikatzerik izango du, zentzu honetan eskaerarik balego. Halaber, eskaera onartu egin zaion autoreak, SGAE Fundazioarekin hitzarmen bat sinatu beharko du zeinaren bidez laguntza objektua justifikatzen duten ekimen edo emanaldiak benetan burutzera behartzen zaion. Garrantzizko baldintza hau ez betetzeak laguntza bertan behera geratzea ekarriko du ezinbestekoki.

II.-EDUKIA

Laguntza, berez, honakoa izango da:

- Segurantza Sozialaren Langile Autonomoen Erregimen Orokorrean (R.E.T.A delakoan) alta bat egingo da, kasuan kasu, gehienez aipatu hamabi hilabeteak bete arte. Bazkidearen bizitza egoera aintzat hartuko da eta ohiko duen lanbidea egikaritzeko ezindurik ez badago.
- Bazkidea antzerki, ikusentzunezko eta musika lanen errepresentazio plangintza batean sartuko da, Erakunde Sozialekin gauzatuko dena, Segurantza Sozialaren Pentsio Kontributiboari eusteko exijitzen zaion gutxienekoa lortzearen helburuarekin.

III.-ESKAERA AURKEZTEKO BETEBEHAR FORMALAK

1. Eskaera **ADINEKO LANGABETUENTZAKO KOTIZAZIO URTEAK KONPENTSATZEKO**

IV DEIALDIari zuzendu egin behar da.

2. Dokumentazioa postaz bidaliko da helbide honetara: Sociedad General de Autores y Editores. Departamento de Socios-Área Social y Asistencial. Calle Fernando VI, 4. 28004 Madrid, edo, posta elektronikoen bidez, programamayores@fundacionsgae.org helbidera.
3. Eskaerak aurkezteko epea urte osoan, 2018an, zabalik egongo da, eta onarpenen emaitza laguntzen kudeaketarako aurrekontuen eta lan-taldearen bileren egutegiaren arabera gauzatuko da.

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a. Eskaera formularioa beteta.
- b. FIZ edo EIZren fotokopia.
- c. Azken Errenta Aitorpena edo Ogasun Agiri negatiboa.
- d. Tesoreria Orokorrak ematen duen lan-bizitzaren Txostena (dokumentua egiazkotzat joko da, eskaeraren urte naturalean igorria izan bada ere).
- e. Autonomoen Erregimenean altaren ziurtagiria edo bertan alta ematerik duenarena.
- f. Eskatzaileak proiektu artistiko bat aurkeztu beharko du (emanaldi musikala, sketch bat, bakarrizketa bat, dantza, zine foruma eta abar). Hainbat aldiz errepikatzeko prest egon behar du, hala eskatuz gero, eta bazkideak berak burutzerik izan beharko duen proiektua izango da, derrigorrez. Halaber, proiektua taularatzeko tresneria eta instrumentuak eskatzaileak hornitu beharko ditu.

IV- DEIALDIAREN MUGAK:

Gutxienez boto bakarra duen bazkideari egozten zaion laguntza gisa egiten da honako deialdi hau; IPREM delakoaren bikoitzarekiko berdina edo txikiagoa den urteko sarrera bat egiaztatzerik duenari, gutxienez Segurantza Sozialean 10 eta 14 urte arteko kotizazioa duenari, eta egokitu zaizkion erakunde sozialetan gutxienez 10 errepresentazio edo formakuntza tailer egitea onartzen duenari.

Laguntzek ez dute izaera erretroaktiborik, ezin izango dira ondorengo urteetan errepikatu eta ez dira akumulagarriak. Edozein kasutan, eskatzaileak onartu beharko du SGAE Fundazioak Bazkideen Sailaren bitartez egiten dion enplegu/emanaldi plangintza.

V.- DEIALDIAREN ZENBATEKOA

Kasuan kasu, Jubilazio Pentsio Kontributiboari heltzeko hilabete gutxien geratzen zaizkien bazkideen eskaerei lehenatasuna emango zaie.